



Sagar mota ugari produtzten da Euskal Herrian, eta erakusketan horietako asko ikusteko aukera izango da.

KARKARA

BI EGUNETAN SAGAR MOTA ASKO IKUSTEKO ETA DASTATZEKO AUKERA IZANGO DA

Sagardotarako Sagarren erakusketa Iturraranen

Asteburu honetan Sagardotarako Sagarren erakusketa antolatu da Pagoeta Parke Naturalean lehendabiziko aldiz. Sagar barietate asko egongo dira ikusgai eta aztergai, eta dastatzeko aukera ere izango da.

Euskal Herriko, Asturiasko eta Frantziako 49 sagar barietate bildu ditu Foru Aldundiak Sagardotarako Sagarren erakusketarako: 16 Gipuzkoakoak dira, bertakoak; 7, Bizkaiakoak; 20, Asturiaskoak; eta 6, Frantziakoak. Iñaki Larrañaga Foru Aldundiko teknikariak esan digu Pagoeta Parkeko Ibarrola Goikoa eta Orbelaun baserrietan eta Hondarribian Aldundiak dituen sagarrondo

mintegietan egiten den lana ezagutarazteko antolatu dutela erakusketa. Mintegi horien helburua fruta arbolen ezarpena sustatzea da, sagarrondo landaketak bereziki, dauden barietateak hobetuz eta sagardoaren kalitatea hobetzen lagunduz.

LEHENDABIZIKO ALDIZ

Larrañagak honako hau esan digu: *Normalean sagarrondoak edo sagardotegiak dauden lekuetan antolatzen dituzte horrelako erakusketak eta uzten dizkiegu sagarrak, baina hau da aurreneko aldia Foru Aldundiak berak antolatu duela. Batetik, erabaki dugu gure produktua erakutsi behar dugula, askotan jendeak ez baitaki horrelakorik*

egiten dugunik. Eta, bestetik, sagarra biltzeko garaia iritsi denez eta mintegiak parkean bertan ditugunez, parketxea leku oso egokia iruditu zaigu erakusketa egiteko.

FROGATU ETA PROBATU

Erakutsi bakarrik ez, hainbat froga egingo dituzte Foru Aldundiko teknikariek: refraktometroarekin sagarren azukre maila neurtuko dute; penetrometroarekin sagarren gogortasuna neurtuko dute eta sagarrak erditik jo eta iodo-tan busti ondoren, almidoiaren froga egingo dute sagarra heldua dagoen ala ez jakiteko.

Horrez gain, erakusketara hurbiltzen direnei sagar mota ugari dastatzeko aukera

emango zaie. *Sagar klase asko dago eta zapoaren arabera bereiz daitezke, —esan digu Larrañagak—. Helburu pedagogikoa ere izango dugu. Sagarren artean gaziak, garratzak eta gozoak bereizteko aukera eman nahi dugu, horrelako gauzak lagungarriak baitira mezua eta informazioa jendearengana iristarazteko.*

NORENTZAT

Erakusketa irekia dela azpimarratu du Larrañagak: baserriarrei, nekazal eskoletako ikasleei, sagardogileei eta natura interesatzen zaion edozeini dago zuzenduta.

Urriaren 4an eta 5ean izango da zabalik, 10:00etatik 14:00etara, eta sarrera doan izango da.